

Denboraren makina

Nagore Irazustabarrena

Eta matematikako Nobel saria?



WORDPRESS.COM

STOCKHOLM (SUECIA), 1901. Nobel sariak banatu ziren lehenengoz. Ordutik hona askotariko irabazleak izan dira: gazteak –Lawrence Braggek 25 urte zituen aitarekin batera fisikako saria jaso zuenean, X izpien errefrakzio eta difrakzio fenomenoak ikertzeagatik–, zaharrak –Leonid Hurwiczek 90 urte zituela jaso zuen 2007ko saria ekonomia alorrean–, gizonezkoak (761 guztira) eta emakumezkoak (38 baino ez).

Baina matematikaririk ez dute sekula saritu. Sariak prestatzen ari zela, Alfred Nobelek (1833-1896) matematika alorrean egindako ekarpenak ere saritu zitezkeela pentsatu zuen. Eta zera galdetu omen zien aholkulariei: “Matematikaren ere sariak banatzea erabakiko bagenu, Magnus Gösta Mittag-Lefflerrek irabazteko aukerarik izango al luke?”. Laguntzaileek baietz esan zioten, Mittag-Leffler (1846-1927) suediarrek, besteak beste, funtzio uniformeak serie polinomikoen bidez aurkezteko teorema garrantzitsua formulatu bai-

Nobel sariak prestatzen ari zirela, Alfred Nobelek (ezkerrean) Magnud Gösta Mittag-Leffler matematikariak (eskuinean) saria mereziko ote zuen galdetu omen zien bere laguntzaileei. Diotenez, erantzunak erabaki zuen matematikako Nobel sariaren etorkizuna edo, hobe esanda, etorkizunik eza.



WIKIPEDIA

tzuen. Orduan, Alfred Nobelek matematikaren saririk ez banatzea erabaki omen zuen.

Zenbait historialari suediarrek nahiz frantziarrek ziotenez, gorrotoak eragin zuen Nobelen erabakia, baina bi eskolak ez datoz bat ezinikusi horren jatorrian. Suediarren arabera, Mittag-Lefflerrek ez omen zuen eskrupulurik izan ondasunak biltzeko eta bidean etsaiak ere bildu zituen, horien artean Alfred Nobel. Frantziarrentzat aldiz, emakume kontuek eragin zuten ezinikusia. Mittag-Lefflerrek Nobelen gustuko emakumearekin amodio afera bat izan zuen. Zenbaiten ustez emakume hori Nobelen idazkaria zen, eta beste zenbaitek emaztea zela diote, baina Nobel ez zen sekula ezkondu.

Gaur, bitxikeria hau legendatzat jotzen da, bi herrikideen artean ez zegoelako harremanik –Nobel Parisen bizi zen– eta ez dagoelako zurrumurruak egiaztatuko dituen dokumentaziorik, baina honek erakusten du Nobel sariaren objektibotasuna zalantzan jartzea ez dela berria.

Arrastoak

San Pauloren arrastoak “egiaztatu” ditu Vatikanokoak

BENEDIKTO XVI.AK 2009 San Pauloren urte izendatu du, apostoluaren jaiotzaren 2.000. urteurrena dela eta. Urtea biribiltzeko San Pauloko basilikako sarkofagoaren arrastoak (argazkian) benetan Paulorenak direla egiaztatu nahi izan du. Horretarako laser zunda baten bidez hainbat materialen laginak atera dituzte sar-

kofagotik eta arrastoak Karbono-14 metodoaz datatu dituzte. Emaitzek diotenez, arrastoak I. eta II. mende bitartean bizi izan zen pertsona batenak dira. Aita santuaren ustez, hori nahikoa da San Paulorenak direla baieztatzeko, 200 urte horietan milaka eta milaka lagun ehortzi zituztela kontuan hartu gabe.



WWW.LANACION.COM